

Zaplaztekoa

Koldo Sagasti

Iragan abenduaren 20an Israelgo Armadak Ahed Tamimi 16 urteko neskatila palestinarra atxilotu zuen Nabi Saleh herrian, bere etxe atarian grabatutako bideo bat sare sozialetan zabaldu ostean. Grabaketan nerabeak, esku hutsik, zaplazteko sonatua eman zion okupazio armadako soldadu bati, eta lotsagarri utzi. Berea ume palestinarr baten aurkako beste jazarpen istorio bat izan zitekeen, egunero oharkabean pasatzen diren horietakoa; izan ere, 2017an 467 izan dira okupazio ar-

mada sionistak atzemandako adin txikiak. Berak ere Palestinako beste edozein haurrek izan ditzakeen bizipen larregarrien zama darama lepo gainean: aita hamar aldiz pasatu da Israelgo ziegetatik, amaren lehengusua buruan tiro bat jaurtita erail zuten soldaduek, neba bere aurrean erail zuten protestaldi batean, eta lehengusuari ere astebete lehengo biziarteko lesio larriak eragin zizkioten buruan tirokatuta. Baina Tamimitar gaztearen belarrondokoak ezohiko oihartzuna izan du

mundu osoan, eta arrakasta horrek baidu arrazoi bat: Aheden irudia –adats kizkur hori luzea, Piolinen elastikoa soinean, irribarre desafiatzailea ezpainetan– ez dator bat Mendebaldean emakume palestinarr batengandik espero genezakeen irudiarekin. Zaplastadak, beraz, okupazioaren ankerkeria nazioarteko iritzi publikoaren jomugan jartzeko balio izan du, baina baita Israelek elikatu eta guk sinetsi egin ditugun emakume palestinarrei buruzko estereotipoak desmuntatzeko ere. •

Gutuna

Mirari Martiarena

Kaixo. Zer moduz? Badakit ia urtebete pasa dela idatzi zenidantetik. Mahai gainean dut bidali zenidan azken gutuna, egunero erantzutekotan. Ez baitut aurrekoekin gordetzen, erantzun artean, eta hortxe dago, sukaldeko mahai gainean. Batzuetan faktura artean nahasturik eta besteetan bista-bistan. Egunerokoan presente izan zaitut eta askotan pentsatu izan dut: «hau idatzi behar diot, eta beste hau ere bai».

Oraindik ez dizut kontatu lana utzi nuela eta abentura berrietan nabilela. Ia lau urteren ondoren zure herriko festetan eta ferietan izan nintzela. Ez naizela aspaldian mendira joan eta ez dudala argazkirik zuri bidaltzeko. Ez dugu azken Bertsolari Txapelketako porrarik egin, ez dakit nor zen zure favoritoa ere. Aix, a ze desastrea! Gaur Bilbora etorri gara, badakizu, urteroko hitzordua izaten da giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde. Zuen alde eta zuengatik. Neguko hotzean

berotu ditugu Bilboko kaleak, berotu ditugu bihotzak eta azkena izan den esperantzan bueltatu gara etxera. Aurten “Prest!” gaudela aldarrikatu dugu eta ez dugula motxiladun haurrik nahi. Zer moduz dago zuen ttikia? Koxkortzen ariko da honezkero, ezta? Seguru bisitako ordu guztiak lerdea darizula pasatzen dituzula. Gustura ikusiko nuke zure aurpegia! Hurrengo gutunean igorriko dizkizut kontu gehiago. Hartu besarkada estu bat. •